

Errugbizale agurgarriak,

**Federazio honetako kide diren eta ez diren** hainbat taldek sinatutako eta federazio honi bidalitako eta sare sozialetan publikatutako idatziari (atxikituta) erantzuten:.

1. Match-Ready, federazioak bere kabuz, eta berak nahi izan zuelako, berarentzako eta baita bere taldeei **bere lizentzien tramitazioa eta federazioak berak antolatzen dituen eta ditzazkeen konpetizioak erosoago kudeatzeko erosi zuen programa**, ez konpetizioak kudeatzeko bakarrik. Konpetizioa Match-Ready gabe ere egon da eta egon daiteke, eta **lizentziak bai Match-Ready rekin bai Match-Ready gabe, bai euskeraz eta bai gazteleraz emititu izan dira eta egiten dira.**
2. Match-Ready enpresa, Valentzian finkatuta dago eta bere langileak Valentziarra, Kataluniarra, Gaztelera eta Ingelesa menperatzen dute, Euskara ez. Beraz etengabeko eguneratze, berritze, egokitze eta bestelakoak, hizkuntza hoietan egiten dira.
3. Aipatu behar da ere, jendea kontestuan jartzeko, zenbat pertsonak erabiltzen duten Match-ready zeren eta talde bateko erabiltzaileak pertsona kopuru murriz bat dira klub batean: Lizentzien tramitazioaz arduratzen den/diren pertsona/k, taldeetako delegatuak (aktak idazten eta siñatzen) eta taldeetako kapitainak aktak sinatuz. .
4. Zuen artean adostutako idatzian *"...duela hiru urtetik ari gara federazioari euskarazko bertsioa eskatzen eta hiru urte igarota oraindik euskaldunok ez dugu aplikazioa erabiltzeko aukerarik."* *"Hiru urte hauetan federazioko arduradunei hainbatetan gure eskaera helarazi izan zaie baina hitz politik baino ez ditugu jaso"* idazten duzute: Federazio honek ez du, idatzia sinatzen duten taldeetatik, Match-Ready programa euskaratzearen eskakizunen berririk, eta talde sinatzaileen aldetik ere oraindik ez da hori frogatu. Federazioko batzar orokorretarako ere ez duzue gaia aurkeztu. Beraz eta kontrakoa ez bada frogatzen, hau ez da horrela izan, eta hau esanda edo gaizki-ulertu bat egon da, edo hau asmakizun bat da edo beste gauza bat da...jarri zuek hitza.
5. Gauza ona litzake sinatzen duguna eta publikoki zabaltzen duguna aurrez irakurtzea eta behintzat egia den edo ez konprobatzea.


**EUSKADIKO ERRUGBI FEDERAZIOA - FEDERACION VASCA DE RUGBY**

ErrotaburuPasealekua, 1 - 3º (20018 Donostia - San Sebastián)

Tel.: 943 46 97 68 Fax: 47 16 59

E-Mail: [secretaria@euskadirugby.org](mailto:secretaria@euskadirugby.org) - [dptotecnico@euskadirugby.org](mailto:dptotecnico@euskadirugby.org) - [lehendakari@euskadirugby.org](mailto:lehendakari@euskadirugby.org)

[www.euskadirugby.eus](http://www.euskadirugby.eus)



Behin hau esanda:

1. Harritu egiten nau ohar hau plazaratu duten talde guztiek, Euskadiko Federazioari Euskeraz jarduteko eskubidea ukatzen diotenak , **bere web orrietan (Match Ready baño izugarri erabiltzaile gehio dituztenak) Federazio honek eta Jaurlaritzako hezkuntza, hizkuntza politika eta kultur sailaren eskutik eta harekin elkarlanean, 2015 an argitaratu zuen Errugbiaren terminologiaren hiztegia (Euskaraz-Frantsesez-Gazteleraz-Ingelese) zintzilikatuta ez edukitzea edo Euskadiko Federazioak bere web orrian dokumentu hau duen estekara loturarik ez edukitzea, bereziki hainbat klubetako taldeetan eta maila ez berdinetako entrenatzailea-hezitzaileak edo eta errugbia ikastetxetan sustatze-kaptazio arduradunak, euskal hiztunak ez direnean eta ondorioz errugbi eskaintza gazteleraz edo eta frantsesez egiten dutenean.**
2. Harritu egiten nau ohar hau plazaratu dutenak, **Euskadiko Federazioari euskaraz jarduteko eskubidea ukatzen dutela diotenak , bere web orrietan federazio honek eta Gipuzkoako Federazioarekin elkarlanean, errugbiaren munduko federazioaren, hots, "World Rugby" en errugbi jokoaren arautegiaren euskarazko itzulpena (2014 ean itzulita) zintzilikatuta ez edukitzea edo Euskadiko federazioak bere web orrian dokumentu hau duen estekara loturarik ez edukitzea nahiz eta ohar honen igortzailea epailea izan.**
3. Harritu egiten nau ere, **hainbat talde (6) hauetakok web orriak elebakarrak eta ez euskaldunak direnean.**
4. Zer esanik ez, idatzia sinatzea eta bere taldeak ihazko **euskal txapelketetan inskripzioa oraindik ordaindu gabe duenari buruz (A.Z.R)** nahiz eta beti eta gure deiei erantzuterakoan, egingo zuela zihurtatu (hitza hitz ???, euskaldun hitza ???) edo eta **bere taldeko kudeaketarako Match-Ready programa gazteleraz soilik duenari (D.R.T) buruz.**

Bukatzeko Match-Ready aplikazioa euskeraz erabiltzeko aukera, eta dena ondo joan ezgero, gabon hauetatik aurrera izango duzue. Match-Readyk bere federazioetako aplikazioa eguneratze, berritze edo egokitze haundiak egiteko bi une erabiltzen ditu izan ere, zerbitzua erabiltzaile guztiei eten egiten bait die denborada luze batez hortaz aldaketa horiek egiteko une hauek erabiltzen dituzte: Uztaila eta gabonak.


**EUSKADIKO ERRUGBI FEDERAZIOA - FEDERACION VASCA DE RUGBY**

ErrotaburuPasealekua, 1 - 3º (20018 Donostia - San Sebastián)

Tel.: 943 46 97 68 Fax: 47 16 59

E-Mail: [secretaria@euskadirugby.org](mailto:secretaria@euskadirugby.org) - [dptotecnico@euskadirugby.org](mailto:dptotecnico@euskadirugby.org) - [lehendakari@euskadirugby.org](mailto:lehendakari@euskadirugby.org)

[www.euskadirugby.eus](http://www.euskadirugby.eus)



Makina bat arazo tartean izan dira uztailan martxan jartzeko , badirudi oraingoa posible izango dela, nahiz eta programaren eguneratzearen itzulpen batzuk oraindik ez izan.

Duintasuna ere, errugbi balio gisa hartu beharko genuke.

Zuen eskuetan lagatzen dut ohar hau sar zuen web orrietan eta sare sozialetan publiko egitea edo ez.

Agur bero bat eta jai zoriontzu batzuk opa dizkizuet

Euskal Herrian, Abenduak 13 an.

Iñaki laskurain  
Euskadiko Errugbi Federazioko Lehendakaria.



**EUSKADIKO ERRUGBI FEDERAZIOA - FEDERACION VASCA DE RUGBY**

Errotaburu Pasealekua, 1 - 3º (20018 Donostia - San Sebastián)

Tel.: 943 46 97 68 Fax: 47 16 59

E-Mail: [secretaria@euskadirugby.org](mailto:secretaria@euskadirugby.org) - [dptotecnico@euskadirugby.org](mailto:dptotecnico@euskadirugby.org) - [lehendakari@euskadirugby.org](mailto:lehendakari@euskadirugby.org)

[www.euskadirugby.eus](http://www.euskadirugby.eus)